BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

3151

113/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari San Mamés Barria, S.L. sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

San Mamés Barria, S.L. sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2012ko maiatzaren 16an egindako bileran, Akziodunen Batzar Orokorrari zenbait kapital-gehikuntza proposatzea erabaki du: guztira, berrogeita hamasei milioi eta ehun mila (56.100.000) euroko gehikuntza da, euro baten balio nominaleko 56.100.000 partaidetza sozial berriren jaulkipenaren bidez egingo dena. Partaidetza berri horiek zatiezinak eta metakorrak izango dira, eta gaur egunekoek dituzten eskubide politiko eta ekonomiko berberak izango dituzte.

Lehenik, kapital sozialaren gehikuntza bat egingo da, diruzkoak ez diren ekarpenen kargura (16.800.000 euro). Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartuko du gehikuntza hori. Ordainketa egiteko, bere titulartasunekoak diren lurrak entregatuko ditu San Mamés Egikaritze Unitatean.

Halaber, beste gehikuntza bat egitea erabaki da, diruzko ekarpenen kargura (18.000.000 euro); ordainketa 2012ko ekainaren 29a baino lehen egin behar da. Gehikuntza horren zati bat (12.000.000 euro) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hartuko du bere gain, eta gainerako zatia (6.000.000 euro) Bizkaiko Foru Aldundiak.

Azkenik, kapital sozialaren beste gehikuntza bat egitea erabaki da, 21.300.000 eurokoa, diruzko ekarpenen kargura, eta 2012ko abenduaren 15a baino lehen egingo da ordainketa. Gehikuntza horren zati bat (8.400.000 euro) Athletic Club-ek hartuko du bere gain, eta beste zatia (12.900.000 euro) Kartera 2, S.L. sozietateak.

San Mamés, S.L. sozietateak, gaur egun, 35.866.103 euroko kapital soziala du. Hortik, Athletic Club-ek % 52,42ko sozietate-partaidetza du, Bizkaiko Foru Aldundiak % 27,89koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak % 13,94ko partaidetza du, Kartera 2, S.L. sozietateak % 5,58koa, eta Bilboko Udalak, berriz, kapital sozialaren % 0,17 du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak orain jaulkitakoetatik 12.000.000 partaidetza hartuko ditu, 12.000.000 euroko ordainketa eginez. Gainerako partaidetza berriak bazkideek hartu eta ordainduko dituzte, hitzartutako moduan, betiere erabakitako kapital-gehikuntzetan gainerako bazkideek euren lehentasun-eskubideei uko formala eta adierazia egin ondoren, kapital-sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 304. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 110.1 artikuluak honako hau ezartzen du: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea atxikirik duen edo izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du eragina.

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak nahitaez adieraziko ditu, non eta doako eskuratzea ez den, sozietatearen xedea eta EAEk, zuzenean nahiz zeharka, zenbateko partaidetza-portzentajea izango duen sozietatean.

San Mamés Barria, S.L. sozietatearen helburu soziala kirol-estadio berri bat sustatzea, eraikitzea eta ustiatzea da, sozietateak Bilbon dituen lurretan. Kirol jarduerak ez ezik, estadio berriaren ustiapenak hartuko ditu, baita ere, legez onartzen diren estadioaren erabilerei begira egin litezkeen bestelako jarduera osagarriak ere, alegia, sozietateak zuzenean egindako jarduerak edo beste batzuen bitartez egindakoak.

Behin bazkideek partaidetza sozialak eskuratzen dituztenean, Administrazioak San Mamés Barria, S.L. sozietatean duen partaidetza % 18,49koa izango da.

Sozietateko kapital-gehikuntzek berekin dakarte estatutu-aldaketa, eta beraz, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetzen ordezkariari baimena ematea, aldaketa horiei dagokienez bere adostasuna adierazteko, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko ekainaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematea San Mamés Barria, S.L. sozietateak egin behar dituen hiru kapital-gehikuntzetako batean parte hartzeko; zehazki, hemezortzi milioi (18.000.000) euroko kapital-gehikuntzan. EAEko Administrazioak hamabi milioi euro balio duten hamabi milioi partaidetzaren bidez hartuko du parte gehikuntzan. Halaber, baimena ematea ordainketa egiteko, Akziodunen Batzar Orokorrak –kapitala gehitzeko Erabakian– adierazitakoaren arabera. Kapitala gehitzeko aurreikusitako hiru erabakiak bete ostean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak % 18,49ko partaidetza izango du.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetzen ordezkariari baimena ematea San Mamés barria, S.L. sozietatearen estatutuetako 5. artikuluaren aldaketa onartzeko.

3. artikulua.– Ahalmena ematea Ondare eta Kontratazioko zuzendariari, aurreko artikuluetan xedatutakoa betetzeko behar diren jarduketak egin ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko ekainaren 26an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.